

LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki, *Derecho Público en Euskal Herria*, Bilbao: Lete; IVAP, 2017, 484 or. ISBN: 978-84-6179776-9.

LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki, *Zuzenbide Publikoa Euskal Herrian*, Bilbo: Lete; IVAP, 2017, 462 or. ISBN: 978-84-617-9916-9.

Iñaki Lasagabaster administrazio-zuzenbideko katedradunak asmatu egin du Euskal Herriko zuzenbide publikoari buruzko eskuliburu hau argitaratzearekin. Genero horretako estreinakoa izanik, beste gabe ere, albiste pozgarria da. Lehenik eta behin, XIX. mendeko konstituzionalismoa eta foruen krisia hartzen ditu aurrekaritzat eta 2008ra arteko aldi historiko guztiak zeharkatzen ditu. Liburuaren eduki nagusia euskal lurraldeen azterketa instituzionala da. Egileak berak abisatzen du bere lanaren helburua Euskal Herrian aplikazioa aurkitu duten –edo gaur egun aurkitzen duten– oinarrizko kategoria juridikoak deskribatzea dela. Estatuaren teoriari buruzko azterlanen edukia argi eta garbi ezarrita dago: tratatzen dituzten gaien artean daude subiranotasuna, lurraldea, herritartasuna edo nazioarteko harremanak. Kategoria horiek, dudarik gabe, baldintzatuta daude beren benetako funtzionamenduan, baina ez die ezain estatuk uko egingo. Kategoria juridiko horien xedea Estatu baten existentzia eta ezaugarriak bermatzea da, zeina bere biztanleen askatasunaren aurre-baldintza baita.

Beharbada, hantuste puntu bat lepora liezaioke egileari Euskal Herriaren osotasunari ekin nahi izan dionean; izatez, Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko azterlan sakon eta zorrotza aurkezten baitu, ahalegin nabarmena egiten duena Nafarroako errealitatea islatzeko –hutsune ugari baditu ere– eta Iparraldeko egoera askoz arinago eta urriago tratatzen duena, nahiz eta azken lurralde horri buruzko nobedade berriena eta nabariena jasotzen duen, hau da, Ipar Euskal Herriko Elkargo edo Mankomunitate Bakarra, zeina 2017ko urtarrilaren leian jarri baitzen abian.

Zuzenbide publikotik Euskal Herriaren egoera politiko-administratiboa aztertzeko balio duten kategoria juridikoak aztertzeko helburuak bultzatuta, ohikoa ez den analisi instituzionala egiten du. Lasagabasterren lana, euskal zuzenbide publiko guztia erakundez erakunde aztertzen saiatu ordez, estatu gabeko nazioen oinarrizko osagai juridiko unibertsalei buruzko saiakuntza moduko bat baita. Ildo horretan, gogoeta sakonak eskaintzen dizkigu azken urteotan landu dituen zenbait gairi buruz, hala nola estatu gabeko nazioen lurraldea, herritartasuna edota autodeterminazio-eskubidea. Hiru kontzeptu horiek –eta beste batzuk ere bai– prisma bikoitzetik behatzen ditu: bilakaera historiko-politiko eta juridikotik, eta egungo euskal erakunde politikoetatik. Azkeneko horien artean garrantzi berezia hartzen dute Espainiako Konstituzioan jasotzen diren eskubide historikoek. Halaber, euskararen araubide juridikoa ere aztertzen da lan honetan,

eta ongien biribildutako ataletako bat da, EAE, Nafarroa eta Iparraldeko analisi konparatua egiten duenean, erabilgarritasun handikoa baita hiru lurraldeen artean dauden alde juridikoak ulertzeko. Beste esparru nabarmen batzuk esku-menak banatzeko sistema, Estatuarekiko erlazioak eta euskal lurraldeen arteko harremanak dira. Azken horien artean ere erdiz erdi asmatzen du Euskal Herriko lurraldeen multzoari zuzentzen dion begiradan.

Atarikoaren ostean, lehen kapituluaren ibilbide historiko bat egiten du Euskal Herriaren historia politiko-konstituzionalean zehar. Nahiz eta aspaldiko aurrekariak aipatzen diren –esate baterako, 1200 arterainoko euskal lurraldeen batasuna eta 1512ko gaztelar konkistaren ondorioak–, azterlanaren egiazko abiapuntua XIX. mendeko konstituzionalismoa eta berorrek foruen krisian izan zuen eragina dira, horrek guztiak Estatuaren eta euskal lurraldeen artean piztu zituen tentsioa eta etengabeko konfrontazioak ahaztu gabe. Iparraldea hizpide hartuta Frantziako Estatuari buruzko aipamenak egiten dituen arren, orrialde gehienak Hegoaldeko errealitate historikoari lotzen zaizkio; horregatik, Frantziako Iraultzaren osteko Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoaren bilakaera historiko-juridikoa ez da argituta geratzen. Iparraldeko euskal lurraldeekiko gutxiespen hori bistan eta agerian geratzen da kontakizuna XX. mendean barneratzen denean, hain zuzen, Hegoaldeko historian zentratzen baita berriro. Bigarren Errepublikari, Autonomia Estatuari, diktadura aroari eta trantsizioari eskaintzen dizkion orrialdeak oso sintetikoak badira ere, aldi horietako funtsezko informazioa ongi jasota dago, eta bereziki aztertzen ditu une historiko horietako bakoitzean identitateari lotutako alderdi juridiko-politikoak. Zuzenbide positibotik egindako azterlan bati dagokion bezala, Lasagabaster askoz ere xehetasun handiagoz zentratzen da 1978ko Konstituzioan eta bai Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuaren prozesuan –Gernikako Estatutuan, alegia– eta bai Nafarroako Foru Erkidegoarenean, hau da, Foru Hobekuntza deituan. Egun indarrean dagoen estatutu-esparrua zalantzan jarri zuen Espainiako Estatuarekin libreki elkartzeko Estatutu Politiko berriaren proposamenak –Ibarretxe Planaren azken emaitzak– baina Estatuak errotik moztu zuen. Gauza bera gertatu zen Eusko Legebiltzarrak onartutako 9/2008 Kontsulta Legearekin. Azken bi gai horiei buruzko gogoeta ugari egin ditu Lasagabasterrek hainbat argitalpenetan, eta ondorio haiek dakartza berriro lan honetara, espainiar gobernuaren immobilismo politikoa eta Konstituzio Auzitegiaren erabakiak kritikatzeko, hain zuzen, autodeterminazio-proposamenen legitimitatea eta legezotasuna ukatzen baitituzte, nazioarteko doktrinak ez bezala. Bere ondorioa da Euskal Herriak subjektu politiko gisa autodeterminatzeko aukera izan behar duela.

Lehen kapituluaren amaiera bigarren kapituluko diskurtsoaren mamia-rekin kateatzen da, non nazio politiko baten aitortza legitimatzen duten zuzenbide politiko konstituzionaleko oinarritzko kategoria juridikoak aletzen baitira,

banan-banan. Lasagabasterren iritzian, existitzen da nazio politiko hori Euskal Herrian, zuzenbide publikoak, eskubide historikoeak eta hizkuntzak frogatzen duten bezala, eta, demokraziatik abiatuta, autodeterminatzeko eskubidea egikaritzea lortu behar litzateke. Bigarren kapitulu honetan, EHUko irakasleak euskal botere publikoen oinarriak eta herrialdeko erakunde publikoen ezaugarriak aztertzen ditu, bereziki autonomia-estatutuen bitartez. Espainiako Konstituzioan jasotako nazionalitateen eta eskualdeen autonomiarako eskubidea ere aztertzen du, bai eta eskubide historikoen bitartez foruak berrezartzea eta Konstituzio Auzitegiak horri buruz egiten duen interpretazioa ere. Euskal errealitatetik nazio anitzeko estatuetakoa erabakitzeako eskubideari buruzko proposamenara igarotzen da, Quebecoko kasua azpimarratuz; azkenik, autodeterminazio-eskubideari buruzko gogoeta bat egiten du, nazioarteko zuzenbideko erreferentziekin.

Herrien eskubidetik herritarren eskubidea aztertzeraz igarotzen da, herritarrek ulertzen baititu eskubideen subjektu titular gisa; horregatik aztertzen du nazionalitatea eta euskal herritarren izaera politikoa. Bereziki kritikoa da estatuaren kontzeptzio zentralistarekin, izan ere, burujabetzako printzipio konstituzionalak aintzat hartu ordez, bere diskurtsoa eta praxia biratuz joan baita, Espainiako Konstituzioko 149.1.1 artikuluan jasotako berdintasunaren eskumen-titulua gehiegizko erabileraren ondorioz.

Kapitulu hau, euskarak EAEn, Nafarroan eta Iparraldean duen araubide juridikoari arreta berezia eskaini ondoren –non batzuen eta besteen arteko alde handiak ikus daitezkeen–, bai EAEn eta bai Nafarroako ikurrei buruzko analisi labur batekin ixten du, oraingoan Iparraldearen aipamenik egin gabe.

Hirugarren kapituluak antz handiagoa du zuzenbide publikoko eskuliburu batekin: erakunde publikoak aztertzen baitira bertan. Nahikoa xeheki deskribatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako errealitate instituzionala: Legebiltzarra, Gobernuak, botere judiziala, Arbitraje Batzordea, Arartekoa, Kontuen Auzitegia –Nafarroaren kasuan, Kontuen Ganbera–, edota Aholku Batzorde Juridikoa eta Nafarroako Kontseilua. Agian, Nafarroako eta EAEn errealitate instituzionalak ikuspegi konparatu batetik eskaini nahiak bultzatuta, arreta berezia jartzen die erakunde horien izaerari eta funtzioei, deskribapen soilean geratu ordez. Iparraldeko errealitate instituzionalarekin edozein alderaketa egitearen zailtasunak, bestalde, hura analisitik kanpo uztera eramanez egilea.

Laugarren kapituluak ere Hegoaldeko euskal lurraldeetan soilik zentratzen da berriro. Lehenengo zatian, eskumenak banatzeko sistemari jartzen dio arreta, batik bat. Gaiari buruz dauden eredu teoriko desberdinak aletu ondoren, 1978ko Konstituzioak ezarritakoa hartzen du abiapuntutzat, hau da, autonomia-erki-degoek, estatutuen bitartez, eskumenak beren gain hartzearen aldeko xedapen-printzipioa; eta horrekin batera, eskubide historikoak eguneratzearen ondorioz,

estatututik kanpo eskumenak aldatzeko existitzen diren mota bateko eta beste-ko aukerak. Gakoa honetan datza: alegia, nola zehazten diren erkidego batek eskumenak bere gain hartzeko oinarria eratzen duten materialak eta eskumenen kategoria desberdinak. Konstituzioaren itxurazko deszentralizazioari kontra eginez, Konstituzio Auzitegiak ezarritako jurisprudentziaren praktikak eskumenen birzentralizazioa ekarri du, eta hori ez da EAEn eta Nafarroan bakarrik gertatu, baita aldea markatzen duten beste autonomietan ere: kontuan hartu behar da Estatuaren zentralizazioaren inflexio-puntua, argi eta garbi, Konstituzio Auzitegiak Kataluniako Autonomia Estatutuari buruz ekainaren 28an emandako 31/2010 epaiak adierazten duela.

Kapitulu honek bigarren atal luze bat eskaintzen die Euskal Herriko lurraldeen arteko harremanei. Lehenik eta behin, EAEn eta Nafarroaren arteko lankidetzaren harremanei jartzen die arreta. Hain zuzen, azken muturreraino zaildu zituzten harreman horiek 2015 baino lehen agintean egon ziren botere publiko nafarrek. Ondoren, Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko harremanen artikulazioaren berri ematen du. Kasu honetan, Konstituzio Auzitegiak kanpora begirako proiektuari dagozkion eskumen autonomikoak aitortzeari jartzen dizkion oztopo eta trabetatik ekiten dio Lasagabasterrek analisiari; beste aukera batzuk daude haren ordeztu: kanpoko hitzarmenak, nazioarteko asoziazionismoa, aldebi-ko akordioak, edota garapenerako lankidetzak. Era horretan, mugaz haraindiko lankidetzarako mekanismo edo tresna ugari sortu dira, eta guztien artean bat nabarmentzen da: Europako Kontseiluaren mugaz gaindiko lankidetzarako esparru-hitzarmena. Hortik abiatuta sinatu ahal izan zen Baionako Ituna, lurralde-erakundeek beren artean mugaz gaindiko lankidetzaren hitzarmenak izenpetzea ahalbidetu diena. Azken alderdi hori Lasagabasterrek aurrez egindako lan askoz luzeago batzuen sintesia da. Atal honen amaieran, Europar Batasunaren barruan estatu mailakoak ez diren erakundearen parte-hartze mugatuari buruzko gogoeta egiten du.

Liburuak zerrenda bibliografiko bete-betea hartzen du barnean, abiapuntu modura erabiltzeko oso gomendagarria euskal zuzenbide publikoaz ikertzen hasi nahi duen edonorentzat, nahiz eta garrantzi handiko gabeziak ere badituen euskal zuzenbidearen historian ezinbestekoak diren tituluak dagokienez, eta oso bereziki, Nafarroari eta Iparralleari buruz egindako zenbait azterlanen kasuan. Lana, bestalde, aldeztu aurretik gaztelaniaz argitaratutako jatorrizko baten egokitzapena da. Bi argitalpenak –euskarazkoa eta gaztelaniazkoa– urte berean eta argitaletxe beraren eskutik agertu dira. Bibliografian, nolahi ere, argi geratzen da jatorrizkoa gaztelaniazkoa dela, ia ez baitago euskarazko erreferentzia bibliografikorik, nahiz eta, zorionez, hizkuntza honetan egiten den doktrina arloko ekoizpena gero eta ugariagoa den. Ildo berean, bitxia gertatzen da eranskinak euskarara ez itzuli izana, are gehiago testu horietako batzuk jada hizkuntza ho-

netara itzulita daudenean, esate baterako, *Nafarroa eta Estatuaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren testu historikoak: Erakundearen historiari sarrera eta agiriak* izenburuko gure lanean eskaini genituenak, zeina Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak argitaratu baitzuen 2009an.

Liburua aurkibide toponimiko eta kontzeptual osatu batekin amaitzen da. Hemen, beste behin ere, testu guztian zehar agertuz joan diren zenbait itzulpen-akats azaleratzen dira, hala ortografikoak (adibidez, *Carlistak* eta ez *Karlistak*) nola terminologikoak (esate baterako, *Decretos de Nueva Planta*, nahiz eta Zuzenbidearen Historian jada finkatuta dagoen *Oin Berriko Dekretuak* terminoa).

Gabezia horiek, edonola ere, ez dute lausotzen euskarara itzultako obra honen balioa, zeina, hemendik aurrera, kontsultatu beharreko erreferente bat izango baita zuzenbidera hizkuntza horretatik hurbiltzen garen guztiontzat.

ROLDÁN JIMENO ARANGUREN